



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Borrokaren bidez enplegua bermatu dugu Tubacex-en, eta enpresa gezurretan ibili dela agerian utzi dugu

- LAB sindikatuarentzat, guztiz onartezina da Lan eta Enplegu Sailak lanaldia handitzea proposatzea langileak kaleratu nahi izan dituen eta azken urtean langile guztientzat lan-falta argudiatutako bi ERTE aplikatu dituen enpresa batean
- LABeko atal sindikalaren azken erabakiaren berri emateko, prentsaurrekoa egingo dugu, afiliatuen batzarra amaitu ondoren, bihar ostirala, urriaren 1ean, 16:00etan, Bilboko gure egoitzan (Errekalde Zumarkalea, 62, Bilbo)

Tubacexeko gatazkaren parte diren hiru aldeek bilera egin dute gaur: Tubacexeko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzak eta Enpresa Batzordeak. Bilera horretan, Eusko Jaurlaritzak behin betikotzat jo duen proposamen bat helarazi du. Ondoren, enpresa batzordearen gehiengoak hasierako akordio bat sinatu du. LABek ez du sinatu.

Lehenik eta behin, esan nahi dugu hasierako akordio honek ez duela nahitaezko kaleratzerik aurreikusten, eta LABentzat garaipen hori Tubacexen plantillaren eta Enpresa Batzordearen batasunaren eta Aiaraldeko eskualdearen eta gurekin batera egon den Euskal Herriko langileen arteko borrokaren eta konpromisoaren emaitza da.

7 hilabeteko borrokaren ostean, enpresak amore eman behar izan du eta kaleratzeak egiteari uko egin behar izan dio. Tubacexeko zuzendaritzak unearen arabera egoera bat erabili nahi izan du langileak kaleratzeko, eta, borrokari esker, langile horiek beren lanpostuetara itzuli ahal izan dira.

Argi eta garbi esan nahi dugu enpresak ezin izango zuela kaleratzeko erabakia hartu Eusko Jaurlaritzaren babesaren izan ez balu. Gatazka honetan, langileek Euskal Herriko eskualde oso bat eta langileria izan dituzte bidelagun, eta Tubacexeko zuzendaritzarekin, berriz, Eusko Jaurlaritza egon da. Eusko Jaurlaritzak ez dagokion domina bat zintzilikatu nahi du, eta LABek ez du onartuko.

Lotsagarria da Eusko Jaurlaritzak gatazka honetan guztian izan duen zeregina, batez ere azken bi aste hauetan: Lan eta Enplegu Sailarekin izandako bileretan, Eusko Jaurlaritza Tubacexeko Zuzendaritzarekin lerrotatuta egon da. Horren erakusgarri da, behin betikotzat jo zuen proposamen bat helarazi ondoren, Zuzendaritzak proposamena aldatzea onartu zuela, nahitaezko kaleratze batzuk onartuz eta murrizketa berriak gehituz, urte honetako abenduaren 31 arte indarrean zegoen hitzarmena ez aplikatzeagatik.

Lehen proposamenean jadanik lanaldia 40 ordu luzatzea jasotzen zen 2022, 2023 eta 2024an. LABentzat, guztiz onartezina da, hain zuzen ere, Lan eta Enplegu Sailak lanaldia



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

handitzea proposatzea langileak kaleratu nahi izan dituen eta azken urtean langile guztientzat lan-falta argudiatutako bi ERTE aplikatu dituen enpresa batean.

Salatu egiten dugu, halaber, langileak sobera omen zeuden lantokietan lanaldia handitzea eta lan karga areagotzea enpresen bideragarritasunerako alternatiba moduan planteatzea. Eusko Jaurlaritzak bere egin du planteamendu hau. Inork ez du esango Tubacex gezurretan ibili dela?

Horregatik guztiagatik, eta nahitaezko kaleratzeei uko egiteak dakarren garaipena kontuan izanda ere, LABek behin betiko proposamen hau gure afiliazioari helaraziko diogu, eta hark erabakiko du zein izango den LABen azken jarrera akordio honen aurrean.

Azkenik, LABeko atal sindikalaren azken erabakiaren berri emateko, **prentsaurrekoa egingo dugu, afiliatuen batzarra amaitu ondoren, bihar ostirala, urriaren 1ean, 16:00etan, Bilboko gure egoitzan (Errekalde Zumarkalea, 62).**

Laudion, 2021eko irailaren 30ean